



Esp.kodea: 2018CHOZ0018

Gaia: 2019KO AURREKONTU
PARTEHARTZAILEA
Hasiera eguna: 2018/06/22

TXOSTENA – KONTRATUAREN BEHARRA JUSTIFIKATZEKO

1) Espedientearen datuak

Kontratu mota: <i>Zerbitzuak</i>	
Kontratuaren helburua: 2019. urteko aurrekontuak modu partehartzailean bideratzeko prozesua egitea, Arrasatearrek Udal Aurrekontuen zati bat (250.000 €) zertan inbertitu erabaki ahal dezaten.	
Kontratazio Prozedura: <i>Irekia sinplifikatua</i>	
Kontratuaren aurrekontua, BEZ gabe: 14.876,03 euro	BEZ %: 21
Kontratuaren aurrekontua, BEZ barne: 18.000,00 euro	
Kontratuaren iraupena: 4 hilabete	
Unitate sustatzailea: idazkaritza	

2) Kontratu honek bete nahi du ondorengo behar hau (azaldu zergatik behar den kontratu hau egitea)

Arrasateko Udalak partaidetzaren arloan aurrera eraman duen proiektu orokor nagusia 2018ko aurrekontu partehartzaileen proiektua izan da eta arrakastatsua izan da. Izandako erantzuna ikusita, aurreikusten da 2019. urteko aurrekontuak ere modu partehartzailean bideratzeko prozesua egitea.

Udalak bere urteko programazioa aurrekontuan oinarritzen du, hori programatzat hartuz eta **250.000 euroko partida aurreikusten da bere erabilera modu partehartzaile batez erabakitzeko.**

Udal gobernuaren helburuetako bat da herritarren partehartzea bultzatu, izan ere, Udalaren funtzionamenduak eta batez ere, udal helburuak bat etorri behar dira herriaren nahi eta beharrekin. Hori dela eta, herritarrekiko harreman irekia eta gobernu onaren irizpideetan oinarritutako funtzionamendua bilatu nahi du udalak.

Arrasateko Udalarentzat estrategikoa da partehartzearen plangintza orokorra burutzea, orain arte burutu diren ekintza puntualak antolatuz eta guztien arteko koherentzia bilatuz.

Ikusita 2018ko aurrekontu partehartzaileetan herritarren erantzuna zein izan den, erantzun hori oso positibotzat baloratuta, batez ere proposamenen aurkezte faseari dagokionean, udalak ez du aurreko urtean hasitako dinamika partehartzailea apurto nahi eta hortaz, nahi du 2019ko aurrekontuak ere partehartzaileak izan daitezen.

Partaidetzazko aurrekontuen prozesu horrek demokrazian sakontzea du xede, herritarren parte hartzean oinarrituta plangintza publikoaren demokratizazioa, demokrazia-sistema ordezkatzailaz haragoko demokratizazioa eta ekonomiaren demokratizazioa sustatzea.



Esp.kodea: 2018CHOZ0018

Gaia: 2019KO AURREKONTU
PARTEHARTZAILEA
Hasiera eguna: 2018/06/22

Demokrazian sakontzeko, herritartasun aktiboa sustatu eta erakundearen gardentasuna handitzeko Arrasateko Udalak egiten duen ahaleginarekin herritarren erakunde publikoekiko konfiantza handitu nahi da eta era berean, herritarrekiko konfiantza deklarazio bat ere bada.

Parte-hartze prozesu horretan herritarrak protagonista izatea nahi da, Arrasateko Udalaren aurrekontuen definizio faseko erabakimenean herritarrak ahalik eta gehien inplikatu daitezten.

Halaber, parte hartze prozesua bera alde anitzeko herritartasun eskola izan dadin, prozesuan alderdi pedagogikoa bereziki landuko da eta, zentzu horretan, esku-orri zein komunikazio kanal desberdinen bidez hainbat nozio transmitituko dira eremu hauetan: partaidetzazko aurrekontuen prozesuak eta 2019rako ekimena, udalaren eta bere eskumenak, erantzukidetasuna....

Hona hemen planteamenduaren oinarriak:

- Herritarren, erakundeen eta beraien ordezkarien arteko loturak indartzea.
- Herritarrekin pedagogia egitea, 2019ko aurrekontuak oinarri hartuta arrasatearren diruak nondik datozen (sarrerak) eta zertan gastatzen diren erakutsiz.
- Finantza publikoen kudeaketan gardentasuna erakustea.
- Herritarren erabakimena handitzea, 2019ko aurrekontuen lanketan herritar orori hitza eskainiz.
- Hiriko biztanle eta eragileak protagonista bihurtzea, beren herri/auzo eta arloetako aurrekontuen lanketan parte har dezaten dei zuzena eginez eta inplikatuaz.

Udalak ez dauka partehartze prozesu hauek garatzeko baliabiderik, batetik, pertsonal aditua behar delako, eta bestetik, bitarteko material espezifikokoak garatu behar direlako.

3) Kontratu hau loteetan adjudikatzea proposatzen da?

EZ da egoki ikusten 2019ko aurrekontu partehartzaileen kontratua loteetan esleitzea, izan ere prozesu bat da eta emaitza bera ere bai.

4) Kontratu honetan klausula sozialak, ingurumen klausulak, hizkuntza irizpideak kontuan hartu dira? BAI

1.- EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA

Prozesuan garatuko diren jarduera eta zerbitzu guztiak elebidunak izango dira, euskarazkoak eta gaztelaniazkoak. Koordinazio zein gune presentzialetan parte hartuko duten aholkulariek bi hizkuntzotan



Esp.kodea: 2018CHOZ0018

Gaia: 2019KO AURREKONTU
PARTEHARTZAILEA
Hasiera eguna: 2018/06/22

ahoz nahiz idatziz komunikatzeko gaitasun osoa izango dute eta komunikazio ekintzetarako mezuak eta edukiak bi hizkuntzetan prestatuko dituzte, euskarari lehentasuna emanez.

Aholkulariek euskarazko C-1 / EGA maila bermatu beharko dute.

2.- GIZONEN ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNA SUSTATZEA.

Parte hartze prozesuan zehar hainbat alderditan genero berdintasuna sustatzeko irizpideak aplikatuko dira, helburu hauek bere gain hartuta:

- Emakumeen eta gizonen partaidetza inklusiboa lortzea.
- Emakumeen eta gizonen premiak eta beharrak identifikatzea.
- Genero diskriminazioak, zuzenekoak zein zeharkakoak, saihestea.
- Emakumeen zein gizonezkoen parte-hartze orekatua sustatzea.
- Emakume zein gizonezkoen rol aniztasunari bide ematea.

Helburu horiek lortzeko parte hartze prozesu horretan hainbat neurri hartuko dira:

-1 Lantaldearen osaera:

Partaidetzazko aurrekontuen prozesuan lan egingo duen lantaldearen gehiengoa emakumez osatutakoa izatea sustatzea.

-2 Komunikazioa:

Parte hartze ekimen orotan komunikazio alorrak berebiziko garrantzia hartuko du eta komunikazio estrategia, ekintza zein euskarrietan genero berdintasunerako neurriak hartzeko proposatuko dira, jarraian datozen neurrien bidez, besteak beste:

- Guneetara emakume gehiago erakartzeko estrategia komunikatiboak adostea sustatzea.
- Parte hartzeko deia egingo duten eta prozesuko irudi izango diren ordezkarien edo pertsonen artean genero oreka berma dadin sustatzea (argazki edo bideo euskarrietan etab.)
- Erabiliko diren komunikazio euskarrietan hizkera sexista saihestea, pertsonen argazkietan genero oreka mantentzea eta ez erabiltzea argazki zein irudi sexistarik.

3.- ANIZTASUNAREKIKO DISKRIMINAZIO EZA

Parte hartzaileen aniztasunak prozesu parte hartzaileak aberasten ditu, sortutako ideien kopurua eta aniztasuna handituz eta herritarren espektro gehiagotarako ideien sormena sustatuz.

Honako neurriak hartuko dira aniztasunak isla izan dezan partaidetzazko aurrekontuen prozesuan:



Esp.kodea: 2018CHOZ0018

Gaia: 2019KO AURREKONTU
PARTEHARTZAILEA
Hasiera eguna: 2018/06/22

-Euskarri komunikatiboetan eta bozketa fasean hartzen diren erabakietan kontuan hartu pertsona talde ezberdinetara nola iritsi:

- bozka guneak auzoetan,
- adinekoen bozka nola sustatu (IKTen erabilera mugatua dutelako),
- atzeritarren bozka nola sustatu (hizkuntzak, bideoetako irudietan sartu etab.)

-Erabiliko diren komunikazio euskarrietan hizkera diskriminatzaileak saihestuko dira, nola testuetan hala irudietan, eta herritarren arteko aniztasuna islatzen saiatuko gara argazki eta irudietan.

4.- INGURUMENA

Udalarekiko koordinazio bileretan ingurumen irizpideak aplikatuko dira, bai komunikazio euskarri zein ekintzetan eta baita parte hartze bileretan erabiliko diren euskarrietan ere.

Prozesuan ingurumena babesteko apologia egingo da, iraunkortasunaren alde ematen duen irudia zainduz, sormen eta eztabaida prozesuak aktibatuz ingurumenaren ikuspegia txertatuz eta bileretan euskarri fisikoetan (papera, itsasgarriak...) bost neurri hauek aplikatuz:

- material fisiko ahalik eta gutxien sortu.
- baliabide digitalak ahalik eta gehien erabili.
- material birziklatuak erabili eta herritarren aurrean esplizitatu.
- erabilitakoak berrerabili eta berrerabilpena ikusarazi.
- berrerabilitakoak birziklatzeko moduan sailkatuta bildu.

5) ESLEIPEN IRIZPIDEAK

IRIZPIDEAK, MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKAGARRIAK. 75 puntu (sartzeko B gutun azalean)

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 65 puntu. (B gutun azalean sartzeko)

Puntuaziorik altuena emango zaio preziorik merkeenari, eta formula honetatik ateratzen da gainontzeko proposamenen puntuazioa: preziorik baxueneko eskaintza zatitu baloratzen den lizitatzaiarearen eskaintzaz eta emaitza hori biderkatuz irizpideari aplikatu dakizkikeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

$$Lp = Et/Le \times 65$$



Esp.kodea: 2018CHOZ0018

Gaia: 2019KO AURREKONTU
PARTEHARTZAILEA
Hasiera eguna: 2018/06/22

Non-eta:

Lp: lizitatzaillearen puntuazioa

Et: eskaintzarik txikiena

Le: lizitatzaillearen eskaintza

Printzipioz, eskaintzak kontsideratuko dira ezohikoak edo neurritz kanpokoak, lizitaziotik baztertu egin daitezkeelarik, baldin eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino txikiagoak badira, 15 portzentaje unitatetik gora. Adierazpen hori egin aurretik, informazioa eskatu beharko zaie lizitatzaille guztiei, ustez eskaintza horretan parte hartu dutenak, eta aholku teknikoa dagokion zerbitzuari.

Kasu guztietan, eskaintzak baztertu egingo dira baldin eta egiaztatzen bada ohiz kanpo baxuak direla, zeren urratzen baitute azpikontratazioaren gaineko araudia edo ez baitituzte betetzen betebeharrak ingurumen, gizarte edo lan arloan, estatuan edo nazioartean, eta ez baitituzte betetzen arloko hitzarmen kolektiboak, indarrean daudenak, 201 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko.

Ulertuko da, kasu guztietan, justifikazioak ez duela azaltzen ongi lizitatzailleak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua, justifikazioa denean osatugabea edo oinarritzen denean hipotesi edo praktika desegokietan ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomiko batetik.

2.- Exekuzio epea: 8puntu. (sartzeko B gutun azalean)

Exekuzio epea murriztea baloratuko da honela:

- Exekuzio epea murriztea aste batean: 4 puntu.
- Exekuzio epea murriztea bi astetan: 8 puntu.

3.- EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA: 2 PUNTU. (B gutun-azalean sartzeko)

Emango zaie puntu 2 eskaintzei, baldin eta konpromisoa hartzen badute kontratuari atxikitako langileen erdia (% 50) emakumeak izan daitezzen.

IRIZPIDEAK, EBALUATU DAITEZKEENAK BALIO JUDIZIOEN BIDEZ: 25 puntu (sartzeko A gutun azalean)

4.- TXOSTEN TEKNIKOA: 25 PUNTU. (A gutun azalean sartzeko)

- a) Arrasateko 2019ko aurrekontu parte hartzaileen proposamena eta zein punturaino barneratzen dituen agiri teknikoetan jasotako eskakizun eta aspektu guztiak, zeharkako politikakoak barne, eta bereziki komunikazio ekintzak eta bozkatzeko aukerak: 20 puntu.



Esp.kodea: 2018CHOZ0018

**Gaia: 2019KO AURREKONTU
PARTEHARTZAILEA
Hasiera eguna: 2018/06/22**

- Egitura, antolaketa eta plangintza egokiaz formulatutako eskaintzak izatea, koherentzia eta ordena izango duen partaidetza eredu integral eta integratua eraikitzen lagunduko duena.
- Partaidetza eredu errealista bat izatea, udalerrriaren eta ingurunearen idiosinkrasiara egokitzen dena, ongi egituratua eta, batez ere, eraginkorra.
- Benetan askotarikoa, irekia eta inklusiboa den parte hartze prozesua izatea. Aukera-berdintasunaren printzipioan oinarrituta, kopuruz zabala eta sozialki askotarikoa izatea, emakume eta gizonen arteko presentzia orekatuarengan arreta jarritz, horretarako bide eta parte hartze mota osagarri eta konbergenteak erabiliz
- Berdintasuna sustatzea: gizonen eta emakumeen desberdintasunak ezabatzea eta genero-rolak haustea bultzatzea.
- Inklusiboa izatea, askotariko interes taldeen eta pertsonen proposamenak jasotzeko dinamikak eta bideak ezartzea.

b) Zerbitzuari atxikitako lantalde teknikoa osatzen dutenen kopurua, eta aurrekontu parte hartzaileen prozesuetan edukitako esperientzia: 3 puntu.

Lizitatzailleak eskaintzan sartuko du deskripzioa eta organigrama, non agertuko duen zer talde tekniko izango duen zerbitzua eman bitartean, eta adieraziko ditu izena, titulazioa eta lan esperientzia antzerako prozesuetan. Memoriaren eranskin moduan aurkeztuko dira izena eta prestakuntza akademikoa eta lanekoa, izendatutako talde teknikoaren kide guztiena, haien curriculum-vitae agiriekin batera.

c) Hobekuntzak: 2 puntu.

Prozesua aurrera eramateko beharrezkoak ez diren baina lagungarri gerta daitezkeen proposamenak balioztatuko dira. Prozesua osatzera bideratutako proposamen horiek osagarri edo hobekuntza gisa identifikatuta agertuko dira.

6) KAUDIMEN TEKNIKO ETA EKONOMIKOA

2.d) Kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren egiaztagiria edo egiaztagiriak. Egiaztatu beharko dira era hauetako batez edo hainbatez:

- Enpresariaren aitorpena adieraziz negozioen urteko bolumena, azken hiru urteetako ekitaldi hoberenari dagokiona, kontratuak hartzen duen eremuan, urteko balio estimatuaren % 70ekoa edo handiagoa.

2.e) Egiaztatzea kaudimen teknikoa edo profesionala. Egiaztatu behar da agiri hauek aurkeztuta:

- Azken hiru urtean egin dituzten antzeko zerbitzuen zerrenda, eta hor sartuko dira zenbatekoa, egunak eta horien onuradun publiko nahiz pribatuak, garrantzitsuenetan exekuzio onaren ziurtagiriekin batera.

Ez da onartuko enpresa lizitatzaillearen proposamenik, baldin eta ez badute egiaztatzen antzeko zerbitzuak eman izana hiru urtean.



Esp.kodea: 2018CHOZ0018

Gaia: 2019KO AURREKONTU
PARTEHARTZAILEA
Hasiera eguna: 2018/06/22

- **Euskara:** kontratua burutu behar du(t)en pertsonak egiaztatu beharko du(te) euskara daki(t)ela Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun mailakoa edo baliokidea (3. Hizkuntza Eskakizuna).

Hizkuntza gaitasuna egiaztatu ahal izango da honela:

1. Agiriak aurkeztuta (tituluak edo ziurtagiriak), zeintzuk egiaztatuko duten zerbitzua eman behar duen pertsonak hizkuntza gaitasuna duela.
2. Udalak ezartzen duen proba egitea (kalifikazio horrek ez du izango ezelako baliorik kontratazio espediente honetatik kanpo).

IDAZKARIA